

Ezpalak

Jon Torner

'Euskarari ekarriak' bilduma sareratu du Susak

EUSKARARA ITZULITAKO 2.000 idazlan baino gehiago sareratu dituzte Susa argitaletxeak eta Armiarma elkarteak *Euskarari ekarriak* webgunean (<http://ekarriak.armiarma.com>). 913 idazleren obrak bildu dituzte, ehundik gora hizkuntzatatik euskaratuak. Idazleen inguruko informazioa eta euskaratutako lanen zerrenda eskaintzen ditu webguneak. Gainera, poema solte eta liburu oso batzuk irakurgai daude. Mikel Elortza *Euskarari ekarriak* webgunearen arduradunaren hitzetan, atal hori aberasten joatea da helburuetako bat. Webgunearen azalean, egunez eguneko efermerideekin lotutako informazioa bilduko dute.



Nafarroaren konkistari buruzko DVD eta liburu bana

1512 NAFARROAREN KONKISTA: HAU DA EZKUTATU ZAIGUN HISTORIA izeneko DVDa egin du Nabarralde elkarteak. Oiartzun, Lezo eta Berako Udalek hartu dute parte proiektuan, Udalbide eta Benito Lertxundirekin batera. Floren Aoziz eta Anjel Rekaldek egin dute filmaren gidoia, eta zuzendari lanetan Ruben Marcilla aritu da. Bestalde, 1512-2012 Nafarroa Bizirik! (www.1512-2012.com) ekimenak *Konkistak, 500 urte* liburua argitaratu du. Nafarroako erresistentziaren pasadizoak, Noaingo batailaren mapa eta Tasio eta Zaldieroa komikilarien binetak bildu dituzte, besteak beste.

Luis Mari Bandres irakasle, euskaltzale eta politikari pasaitarra hil zen pasa den astean, 65 urte zituela. Bera izan zen, 1976-1977 ikasturtean, Antxon Santamariarekin batera, unibertsitate ikasketak ofizialki euskaraz eman zituen lehen irakaslea. EHUren Donostiako Kimika Fakultatean eman zituen euskarazko aurreneko klaseak. Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) eta UNED-en ere aritu zen lanean. EAJko kide, Jose Antonio Ardanza lehendakari zen garaian Kultura eta Turismo sailburua izan zen. Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatua izan zen, baita Gipuzku Buru Batzarreko kide ere. ARGIAko kolaboratzailea izan zen, eta Elhuyar taldearen sortzaileetako bat.

Karlos Zurutuza ARGIAko kolaboratzailearen eta Borja Portuondoren *Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean* lanak saria jaso du Lekeitioko XXXII. Euskal Zine eta Bideo Bileran, dokumental profesionalen alorrean. Jon Garañoren *Asamara* ere saritu dute. Lehiaketako sari nagusia Iban Gorritiren *Kantatzen ez duen herria, herri hila da* film amateurak jaso du.

● Txabi Arnal idazleak *El Correo* egunkarian: «Haur literaturak ez ditu umeak modu errealtan tratatzen. Umeei irudi idilikoa eskaintzen zaie gauza guztien inguruan. Errealitatea ezkutatzen zaie eta, nire ustez, literaturaren funtzioetako bat gu mundura irekitzea da. (...) Argitaletxe txikiak kreatiboagoak dira eta gauza berriak ateratzerakoan gehiago arriskatzen dute».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Makalen etorbidea 24, Neguri (48992)
Tel.: 944 912 031 • Getxo, BIZKAIA
www.restaurantejolastoki.com

